JUSTIFIKAGIRIAK AURKEZTEKO EPEA OHIZ KANPO LUZATZEKO EBAZPENA

2026ko azaroaren 13tik 17ra bitartean, biak barne, gorabehera teknikoak izan dira. Horrek interesdunei deialdi honen babesean izapidetutako espedienteetan dokumentazioa gaitutako aplikazio informatikoan aurkezteko aukera oztopatu edo zaildu du.

2026ko azaroaren 18an berrezarri da aplikazioaren ohiko funtzionamendua eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuz, gorabeherek hala gomendatzen dutenean eta hirugarrenen eskubideak bermatzea beharrezkoa denean, epeak luzatzea proposatzen da.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Salbuespen gisa, justifikazio-agiriak eta, bereziki, aipatutako gorabehera teknikoek eragindako espedienteetan aurkeztu gabe dauden ordainagiriak aurkezteko epea luzatzea.

Bigarrena. Dokumentazio hori aurkezteko azken eguna 2026ko azaroaren 23a izango da, egun hori barne, 23:59ra arte.

Luzapen horrek eskatutako dokumentazioa aurkezteko epeari soilik eragiten dio, eta ez du aldatzen deialdian ezarritako gastuak eta ordainketa-egiaztagiriak onartzeko epemuga, zeina 2026ko azaroaren 16koa baita oraindik ere. Ondorioz, deialdian aurreikusitako epearen barruan, interesdunek eskuartean dituzten ordainagiriak bakarrik aurkeztu ahal izango dituzte.

Hirugarrena. Ebazpen honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

IZASKUN GÓMEZ CERMEÑO

MERKATARITZAKO ZUZENDARIA

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila/Eusko Jaurlaritza

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.